

Berriketan

Debako herri aldizkaria - 169. alea - 2012ko abendua



ALDATS FRONT

OINETAKOAK


KAFETEGIA

“Deban euskaraz
bizi nahi dugu!!”

MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

**ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN**



**MULTIÓPTICAS
Uzuri**

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teletel.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

**Lizaso
Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel: 943 192 458 - 918 844 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU
HARATEGIA**

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA
TABERNA**

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA
Arraindegia**

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI
TABERNA**

Sokagiu, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA**

**Informatika
Tresneria
informatikoa**

**Elektronika
Osagai
elektronikoak**

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 688 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jk@informatikojkeletronika.e.telefonico.net

**RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:

Ander Salegi

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Banaketa arduraduna:

Juanma Oartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutiz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



KOLABORAZIOA: Idoia Gereñu, *"Itsasoari begira"*.

05 ALBISTEA: Kolore Anitz, Zuhatza Euskara Elkartearen garatzen ari den aisialdi taldea.

07 ELKARHIZKETA: "Zain dago ama, zain aita...", Itziarko bi preso politikoren gurasoekin solasean.

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT: Debako flashmob herritarra, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan.

BERRIKETAN GAZTEA: Aurtengo gabonak...

14 ALBISTEA: "Aldamenekoa" liburuaren aurkezpena (Tene Mujika). **15 LABURRAK:** San Silbestrea, Beldur Barik lehiaketa... **16-17 ZERBITZUAK:** 18

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.

943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zuek ikusteko irrikan gaude...

Kaixo, lagunok!

Urtea amaitzearekin batera, elkar ikusteko ordua hurbiltzen ari da dagoeneko! Konturatu orduko gainera etorri zaizkigu gabonak... Data berezi hauetan, urtero-urtero, hainbat eta hainbat gutun jasotzen ditugu, eta gu biok ere gutuntxo hau idaztera animatu gara oraingoan.

Zuen eskaeren zerrenda luzea ikusita, lanez lepo gabiltza egunotan eta ezin izango ditugu eskaera guzti-guztiak bete... baina ahaleginduko gara zuen etxean ere oparixoren bat uzten. Hori egin aurretik, dena den, elkar ikusteko aukera izango dugu abenduaren 24ko eguerdian. Oraindik gutuna bidali ez badiguzue, jakin ezazue egun horretan jasoko ditugula azken eskaera eskutitzak. Beraz, animatu zaitzete, oraindik ere garaiz zabiltzate eta!

Mari Domingi eta biok Santa Katalinatik jaitsiko gara Debara, eta zuen gabon kantak eta irribarreak ikusteko irrikan gaude; pixka bat urduri ere bai, emozioz beteriko goiza izaten baita 24koa. Aurten ere Periko astoaren konpainian ikusiko gaituzue herriko kaleak zeharkatzen. Abere polit eta goxoak dira astoak, eta fin-fin laguntzen digute opariak garraiatzen. Horregatik, deia luzatu nahi dizuegu guraso zein haurrei ere gure astotxoa ondo zaindu dezazuen.

Guri laguntzen arituko zaretzen gainontzeko bolondresei ere eskerrak eman nahi dizkizuegu alde zuretik, zuek gabe ezinezkoa litzatekeelako haur guztiengana iristea eta denon artean halako une politak bizitzea.

Besterik gabe, gabon egun zoriontsuak igarotzea opa dizuegu guzti-guztiori. **Eguberri on!**

Olentzero eta Mari Domingi

Zuhatzaren 2013ko egutegia laster eskuragai

Aurtengo Euskal Jaian iragarri genuen bezala, Zuhatza Euskara Elkarteak 2013ko egutegi berezia kalera-tuko du. Baina ez edozelako egutegia! Euskal Jaiko irudi ederrekin osatutako egutegia baizik! Izan ere, pasa den irailaren 29koa aro berriko Euskal Jaiaren 15. edizioa izan zen, eta marka guztiak hautsiz orain arteko bazkari herrikoirik jendetsuena egin genuen Aldats pilotalekuan. Urtemuga borobil hori oroimenean gorde nahian, hainbat koadrila animatu ziren talde argazkiak ateratzera. Argazki horiekin osatu dugu, hain justu, egutegia. Eta azken urteotako Euskal Jaiak iragartzeko baliaitu diren kartelak ere gogora ekarri nahi izan ditugu bertan; 1964. urtean Oargi taldeak antolatuta ospatu zen Euskal Jaiko kartela ere ikus dezakezue egutegian (hitzordu historikoa izan zen 64koa, Euskal Herrian antolatutako lehenbiziko Euskal Jaia izan baitzen Deban ospatutakoa).

2013ko egutegia hiru euroren truke jarriko da salgai eta irabaziak euskara elkartearentzat izango dira. Beraz, adi egon eta lortu zure egutegia!!

Eskerrik asko bihotz-bihotzez egutegi hau egiten lagundu diguzuen guztioi eta baita erosiko duzuen guztioi ere!

Zuhatza Euskara Elkarte

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Idoia Gereñu

ITSASOARI BEGIRA

Astegun buruzuria. Arratseko zortzi eta erdiak. Iluna. Kale-argi zuri hotzak tarteka besterik ez. Euria eta hezetasuna. Hondartza inguruan korrikalari pare. Eta zu. Zu, itsasoari begira. Malekoian gora. Itsasoari begira pasieran. Beste inor ez bertan. Beste ezer ez. Edo bai.

Beste zera bat bai. Beste izate bat.

Haizea. Haize bortitza.

Euriarekin parekatuta blai egin zaituen haizea. Haize

hozbera. Barruraino sartzen

den horietakoa. Eta hare-

kin, kresal usain gozo-

gazia. Kresal usainaren

plazera. Gatzaren aroma.

Harearen urrina. Negua.

Kosta. Eta zu. Eta zurekin,

bakardadearen plazera.

Euripeko isiltasunaren babe-

sa. Bizirik sentitzearen emo-

zioa. Bizitzearen atsegina.

Bustitzearen ederra. Ia ikusten ez

diren olatuen doinua. Ezerezean sor-

turiko txistu kolpeak. Xuxurla ikusezinak.

Hats lurrinduren bat tarteka. Eta zure pauso

hotsak. Urratsez urrats. Oinen mugimendutan

zure denbora. Zeurea den erritmoa. Presarik

gabea. Diosalek oztopatu gabeko oinkaden

sekuentzia. Euriak agindutakoa. Kontra datorren

haizeak behartutakoa. Orratzen joan etorriak

desagerrarazi dituen. Zeurea den erritmoa.

Zeurea soilik. Bazoaz. Aurrera. Etena. Aurrera. Mugituz bazoaz. Baina bertan zaude. Bertan. Lurmutur berean. Lurmutur berean, itsasoaren begietan. Eta bakarrik zaude. Edo eta ez.

Irribarretsu. Aurpegi bustiz. Barrunbea esna duzu. Hotza saihestu nahian saihetsak

estu dituzu. Gorputza estalia.

Ahalik eta zirrikitu gutxieneko

estalkiz hornitua. Lepoko

leuna. Txanodun beroki

luzea. Txanoa burua kuku-

tuz ederki lotua. Txamarra

iristen ez den zangoetako

geruza izoztu zaizu.

Aldiz, galtzerdi eta galtza

onak jantzita. Oinetako

sendoak. Barrualde leho-

rrekoak. Eta barrunbea

esna duzu, gorputz estalian.

Bestimenten barruan ezku-

tuan. Ezezagun. Inpertsional.

Tapakiz josita. Itzala dirudizu.

Mamua. Ilunetan. Atsegin duzu. Pozik

zara. Bizirik zaude. Zu eta itsasoa. Itsasoa eta

zu. Ez duzu bitartekorik. Ez tartekorik. Maite

duzu. Maite zaitu. Elkar maite duzue. Bakarrik

zaude eta ez zaude bakarrik. Badakizu. Zeurea

da itsasoa. Zeurea mundua instantean. Mundua

zara. Itsasoa. Mundua zarete. Itsasoa eta zu. Zu

eta itsasoa. Bakardadean. Euripean. Astegun

buruzurian.



HAURREI EMANDAKO TRATU TXARRAK; HURBILPEN HISTORIKOA



Haurrei tratu txar asko eta era askotakoak eman zaizkie historian zehar: fisikoak, emozionalak, arduragabekeriaz jokatzearen ondoriozkoak eta baita sexu-esplotazio eta laneko esplotazioaren bidez eragindakoak ere. Haurrek ez zituzten gaur gizartean dituzten begirunea eta eskubideak eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanek zerikusi gutxi zuten gaurkoekin alderatuta.

Garai guztietan ezagutu ohi dira hainbat krudelkeria mota, eta ekintza horien helburua haurrak hazteak eta zaintzeak helduengan sortzen duen egonezinetik aske sentitzea izan da. Esate baterako, askotan, opioa eta edari alkoholodunak eman izan zaizkie umeei nagarik ez egiteko.

Inpultsoak ez zituzten garaiz kontrolatzen, eta horregatik hasi ziren purgak, supositorioak eta enemak erabiltzen. XVIII. mendea baino lehen, haurrei supositorioak, enemak eta purgak ahotik ematen zitzaizkien, gaixorik egon edo ez egon. XVIII. mendean, txiza eta kaka egiten kontrolatzeko, gurasoen eta haurren artean sortzen zen borrokan aldaketa gertatu zen, eta pioxntzia erabiltzen eta garbiketaren heziketa zabalitzen hasi ziren. XIX. mendean hasi ziren gurasoak serioski higie-ne-heziketa aintzat hartzen.

XIX. mendean zehar, familia, gizarteko unitate egonkorra bihurtu zen, eta umeak unitate horretako kideak ziren. Gizarte-behatzaileak aztertzen hasi ziren gurasoen jokaerak haurren duen eragina. Garai hartako idazleek, umeen egoera dramatizatu egin zuten eta haien sufrimenduaren inguruan herritarrek sentsibilizatu nahi izan zituzten. Sentsibilizazio-kanpaina horiek komunitate bakoitzeko ongintzako erakundeen lanean isla izan zuten; baita umezurtz-etxeen garapenean ere. Erakunde horiek asmo onez sortu baziren ere, gaixotasun kutsakorrei buruzko ezagutza ezak eta osasun

publikoan praktika egokiak ez erabiltzeak arriskuan jarri zuten haien arrakasta, eta jakina, banakoaren osasuna ere bai.

XX. mendean, haurren zaintzan emandako aurrerapausoak medikuntzan izan diren aurrerakuntzei esker izan dira. Beste aldaketa batzuk, berriz, hala nola bizi baldintzak hobetzea, hezkuntza eta lan egiteko aukerak, edota gizarte eta politika gaietan kontzientzia handiagoa izatea, oro har, izan diren gizarte-aurrerakuntzek bultzatu dituzte. Aldaketa horiek guztiak, psikologia eta beste gizarte zientziei esker gertatu dira. Egindako ikerketen bidez, gehiago jakitea lortu da haurraren garapen fisiko eta psikologikoaren eta behar emozionalen inguruan. Baina gaur egun, oraindik ere, haurrei emandako tratu txarrak oso zabaldua daude mundu osoan.

Haurren eskubideak poliki-poliki onartu dira historian zehar. Haurren eskubideei buruzko legedi espezifikokoak berebiziko garrantzia du; izan ere, gizakia- ren lehenengo urteek duten ezaugarrietako bat heldutasun eza da. Hau da, haurrek ez daukate helduek duten gaitasuna euren eskubideez baliatzeko, horregatik beharrezkoa da haurrentzako eskubide bereziak egitea, nahiz eta Gizakien Eskubideen Deklarazio Unibertsala badagoen.

Haurren Eskubideen Konbentzioak mundu osoko haurren oinarritzko eskubideak azpimarratzen ditu honako eremu hauetan: osasuna, hezkuntza, familia, gizartearen babes, aisia, eta abar. Irtenbide honek nazioarteko izaera duenez, estatu guztiak behartzen ditu; izan ere, Konbentzioaren helburua herri guztietan ekintzak, ekimenak eta legedia hedatuz, eskubide horiek betearaztea baita.

Marian Larrañaga

KOLORE ANITZ, Zuhatza Euskara Elkartearen garatzen ari den aisialdi taldea



2012ko udaran, Debako udalekueetan elkarlanean aritu ginen herriko gazte batzuk gara. Gure artean harreman handia sortu zen eta lantalde bikaina eta alaia osatu genuen. Uztaila amaitzeaz zegoen, eta berarekin batera gure udalekueetako lana ere bai. Baina gure gogo biziak, koordinatzailearen bultzadak eta herrian sumatutako premia batzuek aurrera jarraitzeko gogo piztu ziguten. Hori horrela, irailean berriz elkartu eta aisialdi talde bat martxan jartzea erabaki genuen. Gure helburuak, baloreak eta abarrak mahai gainean jarri genituenean, Zuhatza Euskara Elkartearekin bat etor zitezkeela ikusi, eta beraien baitan lan egitea proposatu genien. Erantzuna azkarra, borobila eta polita izan zen; baietza eta beraien konfiantza eskaini ziguten. Beraz, egun, Zuhatza Euskara Elkartearen garatzen ari den Kolore Anitz aisialdi taldea gaituzue.

Deban, aisiaz gozatzeko hamaika arrazoi eta mila aukera eskaintzea litzateke gure xede nagusia. Gure altxorra



den euskararen bitartez hezi eta jolastu nahi dugu. Haur, gazte, guraso, gainontzeko elkarte eta orokorrean herriari zuzenduz, herria koloreztatzeraz gatz.

Oraindik ilunpean gauden arren, poliki-poliki azalera-tzen hasteko irrikan gaude. Lan egiteko gogo bizia eta ilusio handia daukagu sortu berri dugun proiektu honetan. Pausoz pauso maratoni honetan lehen urratsak ematen hasi gara, Udalak proposatutako gurasoentzako euskal jolasen ikastaro batekin. Larunbat goizetan elkartzen gara, Luzaro Ikastetxean. Bertan, euskal jolasak eta abestiak ikasten ditugu gurasoekin, haurrentzako zaintza eskainiz. Talde txikia osatu dugun arren, pozik gaude eman zaigun lehen aukera honekin. Mila esker parte hartu duzuen guztioi eta gugan konfiantza jarri duzuenoi!

MUNDUZ MUNDU HEGAN EGIN, EUSKARAZ BIZIZ KOLORE ANITZ!!

Euskararen normalizazioan aro berri bat zabaltzeko apustua egin dute Topaguneak eta euskaldunon elkarteek

Topaguneak eta euskaldunon elkartearen mugimendua osatzen duten 96 elkarteek, tartean Zuhatzak, hiru urteko hausnarketari amaiera eman zioten Bilbon (azaroaren 17an) "Federaziotik Mugimendura" lelopean egin zuten kongresuan.

Mikel Irizar Topaguneko presidenteak esan zuen 30 urteko ziklo bat amaitu berri dela euskalgintzan, eta lorpen handiekin batera, "goia jo" izanaren sentsazioa ere utzi duela mugarririk horrek. "Horrek, eta jarduera askoren biziraupena bera kolokan jarri duen krisi ekonomikoak, ziklo berri bati indartsu ekiteko beharra ekarri du. Ziklo berri horretan eragin handia izango du aro politiko berriak, lankidetzarako aukera handiak zabaltzen baititu herri erakunde eta gizarte eragileen artean, iraganeko botere-kontrabotere dialektika gaitututa", nabarmendu



zuen Irizarrek.

Ziklo berri horren hezurdura plangintza "potente" bat izatea proposatzen du Topaguneak, eta giharra, berriz, "euskalgintza berri bat", gizarte- an eta erakundeetan ondo txertatua eta bi esparruen arteko lankidetzara sustatu-ko duena. Bihotzean, azkenik, euskal

hiztuna kokatu du Topaguneak.

Hiru urteko ibilbidearen ondoren, Topagunea ziklo berri horri ekiteko "gertu eta gogotsu" dagoela adierazi zuen Irizarrek, eta euskaltzaleak, gizarte eragileak zein erakundeak animatu ditu elkarlanean jardutera, ziklo horren oinarriak zehazte aldera.

Zain dago ama, zain aita...

Asteak joan asteak etorri, herriko preso politikoaren senide eta lagunek kilometro ugari egin dituzte beraien kide edo senitartekoak ikusi ahal izateko. Jose Antonio Galarraga Valladoliden dago (354 km), Jokin Urain Ciudad Realen (682 km), Juan Mari Gabirondo Pontevedran (779 km), eta Jose Mari Beristain Cadizen (1.132 km). Hemendik, gure animo eta babes osoa dispertsioaren zama hau gertutik bizi duzuen guztioi eta astero-astero isilpean bidaiaren gastu, arrisku, neke fisiko eta psikologikoei aurre egiten diezuenoi.

Gurasoek egoera hau nola bizi duten jakin nahi izan dugu oraingoan eta hona hemen beraiek kontatu digutena:



M^a Luisa Agote eta Jose Mari Gabirondo, Juan Mari Gabirondo preso politikoaren gurasoak

Noiz ikusi duzue azken aldiz semea?

Miren: Nik abenduaren 1ean ikusi dut azken aldiz. Aitak 5-6 urte hauetan ez du ikusi. Zaragozan zegoela ikusi zuen azkena, oso gaizki pasatu zuen bisitan eta harrez gero ez du joan nahi izan. Telefonoz astero deitzen du. "Zuek ondo bazaude, ni ere bai" esaten digu, baina hori ez da kontua.

M^a Luisa: Jada, orain, ez daukat gogorik joateko. Pentsatzen dut "laster etorriko da" eta... Aste Santuetan bi urte egingo ditu azken aldiz ikusi nuenetik baina bidea luze gelditzen da eta nahiago dut ez joan; 83 urte ditut eta urte asko dira horrelako bidaiak egiteko. Telefonoz sarri deitzen du eta eskerrak horri, poza ematen du. Aita Malagara joatera animatu zen behin, duela 20 bat urte, baina uste baino gogorragoa egin zitzaion bidaiara (nahi baina ezin). Azken aldiz Madrilera ekarri zuten batean ikusi zuen, duela hamar bat urte.

Zer maiztasunekin joaten zarete bisitan?

M.: Cadizen dagoenetik zazpi aldiz joan naiz ni. Senideak hilean behin edo bitan joaten gara eta beste batzuetan lagunak joaten dira.

M.L.: Anai-arrebak hilean behin joaten dira, txandakatuz. Bestalde, hamar laguneko zerrenda bat dauka onartua bisitak egiteko eta ia astero edukitzen du bisita.

Kontaiezaguzue bisita egun bat etxetik irteten zaretenetik hasita...

M.: Larunbatean 11:00ak aldera irten ginen etxetik kotxez Bilbora joateko. Ordubietan hegazkina hartu, eta

15:30ean Sevillara iritsi ginen; han kotxe bat alokatu eta 17:30ak aldera iritsi ginen espetxera. Seietan sartu ginen bisitara eta zortziak inguruan irten ginen. Berandutu egin zitzaigunez, Cadizen gelditu ginen afari pasada egiten eta ondoren lotara. Hurrengo egunean Sevillara joan ginen eta eguerdiko 12etan hartu genuen bueltako hegazkina.

M^a Luisaren alaba: Bi modutara joaten gara. Batzuk kotxez joaten dira, kartzelatik hurbil dagoen ostatu batean lo egin, hurrengo egunean bisita egin eta buelta. Ni neu furgonetan joaten naiz. Gaueko 9:30ak inguruan irteten gara etxetik eta 11etan bisitetarako antolatzen den furgoneta hartzen dugu Gasteizen, eta goizeko 6ak edo 7ak aldera iristen gara. Gosalduta eta goizean zehar bisitak egiten dira. Gu "bis a bis" etara joaten gara eta azken aldietan ia hiru orduz egon gara berarekin. Bisitak amaitu ondoren berriro furgonetara. Leonen gelditzen gara, menu bat bazkaltzen dugu eta 10ak aldera iristen gara berriro Gasteizera.

Nola ikusten duzue zuen semea, zer moduz dago?

M.: Ondo ikusi genuen, hizketan ari ginela eten ziguten bisita eta triste antzean geratu zela iruditu zitzaidan. Hiru operazio ditu egiteko, meniskoa, barizeak eta hernia. Meniskotik operatzera eraman zuten ospitalera duela hilabete inguru baina han gosaria eman zioten eta operatu gabe itzuli zuten kartzelara. Orain ez dakigu berriro noiz eramango duten ospitalera; horregatik, belauneko menez jarraitzen du.

M.L.: Ondo dago. Sinistu ere! Nola pasa litekeen horrenbeste urte han... Esaten dute bera dela denak animatzen ibiltzen dena, edozeini laguntzeko prest beti.

Zenbat kostatzen zaizue bisitaldi bat?

M.: Ez dakit, diru mordoa gastatzen da. Ni ezin naiz bakarrik joan; oraingoan semea, erraina eta bilobarekin joan naiz. Hegazkina bakoitzak 100 euro ordaindu dugu, gero bazkaria, afaria, gosaria, loa, kotxearen gastua... bai, diru asko.

M.L.: Furgoneta 75 euro ordaintzen dugu bakoitzak.


Izandako arazoren bat, anekdotaren bat...

M.: Bai, urte asko dira eta beti gertatzen da zerbait. Ni beti sartu izan naiz bisitara baina nire iloba bat bisitara sartu gabe geratu zen familia liburua eskatu ziote-lako eta ez zuelako eraman. Nire suhiari era gauza bera gertatu zitzaion beste behin. Madrilan zegoela, errainari ere ez zioten sartzen utzi, nahiz eta semearekin bizi zela baieztatzen zuen agiria eraman zuten. Hainbeste Km. egin eta bisitarik gabe geratu.

M.L.: Horrenbeste urtetan horrenbeste gauza ikusi dugu. Malagan 22 urtez egon da eta nik oroitzapen txarrak ditut. Garai batean janaria eman zitekeen eta gazta eder bat eman nuen semeari asko gustatzen zaiolako. Osorik zegoela eta ezin nuela sartu esan zidaten, xerratuta bakarrik sartu zitekeela. Lagunei esan eta haien laguntzaz dena zatitu eta plastikotetan bilduta prestatu genuen eta han joan nintzen berriro. Alferrik izan zen, ahal nuen eran ulerrarazi nahian nenbi-

Abenduaren 27an hasiko da Debako V. animazio zinemaldia

Animadeba 2012 jaialdia abenduaren 27tik 30a bitartean ospatuko da. Debako animazio zinemaldiaren bosgarren edizioa izango da aurtengoa eta, urtero legez, egitarau zabala prestatu du Debako Udalak: hitzaldiak, filmen emanaldiak, erakusketa... Ekitaldi gehienak Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan ospatuko dira.



Animazio zinemaldia Isabel Hergueraren hitzaldiarekin abiatuko da, hilaren 27an (19:00etan). Arte Ederretan lizentziatua da Herguera (Donostia, 1961) eta animazio ikasketak egin zituen Alemanian eta Kalifornian. AEBko animazio-estudio komertzial ezberdinetan aritu izan da lanean eta bere ibilbidean animazio sari ezberdinak ere lortu izan ditu donostiarrak -Animadrid-eko laburmetrairik onenari saria lortu zuen, adibidez, eta baita Goya sarietarako izendapena ere-. Hitzaldia eskaintzeaz gain, Isabel Herguerak erakusketa bat ere badakar Debara, "Bidai koadernoak" izenburupean; Agirre Jauregiko erakusketa aretoan egongo da ikusgai, abenduaren 6tik urtarrilaren 6ra.


Abenduaren 27ko hitzaldia-oren ostean, "La gallina ciega" (2005), "Amar" (2010) eta "Bajo la almohada" (2012) laburmetraiak eskainiko dira. Gaueko hitzordua Gaztetxean izango da, 22:00etan hasiko den "Pesadilla antes de Navidad" (1993) luzemetraia-ren emanaldiarekin.

Abenduaren 28an (ostirala) "Aita zontzia naiz" (2011) film luzea proiektatuko dute, 17:00etan. Pare bat ordu beranduago, "Zeinek gehiago irau" (2011) film labur euskalduna

ikusteko aukera izango da, baita "Arrugas" (2011) luzemetraia ere. Eta, abenduaren 29ko protagonista nagusia "Gartxot" (2011) filma izango da (17:00etan eskainiko dute).

Hilaren 30ean, berriz, hainbat emanaldi egongo dira aukeran: 17:00etan "Katu bat Parisen" (2010) luzemetrai frantsesa, eta 19:00etatik aurrera "Vogel" (2011) film laburra eta "Inmigrantes" (2008).

Gortina lehiaketari dagokion sari banaketa ekitaldia ere abenduaren 30ean egingo da, Agirre Jauregian. Hitzordu horrekin amaituko da, hain zuzen ere, aurtengo animazio zinemaldia.



Miren Urbieta, Jose Mari Beristain preso itziartarraren ama

lela "hable menos y márchese" esan zidaten. Hura disgustua hura, ez zait inoiz ahaztuko. Ahoa lehor-lehor nuela hitz egin ezinik bueltatu nintzen, semeak bisitan aipatu nion gazta eta hain gogoko zuena ez zuela jasoko pentsatuz.

Nola bizi izan duzue semeari 197/2006 doktrina aplikatu izana?

M.: Zer egin behar duzu? Hemen ez dago beste erremediorik, tragatu.

M.L.: Sinistu ezin, hori ezin liteke esaten nuen nik. Hori ez ezazue sinistu, hori beldurtzeko esango dizue, esaten nien seme-alabei. 2010eko abenduaren 1ean irten behar zuen eta berarekin plan asko egiten ari ginen eta horretaz komentarioak egiten genituen. Oso gogorra izan da. Berak gure aurrean beti disimulatu du baina pentsatzen dut beretzat ere oso gogorra izango zela.

Zer botatzen duzue faltan egoera hone-tan?

M.: Hurreratzea, nik gerturatzea eskatzen dut, bai neu joateko, bai umeak ikusteko, sarriago joateko, astero ikusteko.

M.L.: Semea, horixe botatzen dut faltan. Gu biok hemen gauden bitartean hura hementxe ikustea, horixe nahi genuke.

Zain dago ama, zain aita...

Egoera honek amaitu beharra dauka, ezin dira familiak horrela zigortu. Urtarrilaren 12an, Bilbon, ozen esango dugu: "GIZA ESKUBIDEAK. IRTENBIDEA. BAKEA. EUSKAL PRE-SOAK EUSKAL HERRIRA".

Zatoz gurekin !!!

Debako Herrira bilgunea

Debanaturak Gabongune Txiki egitasmoa antolatu du 4 eta 9 urte bitarteko haurrentzat

Debanatura Ingurumen Heziketa Elkartek Gela Berdeko Gabongune Txiki izeneko egitasmoa antolatu du lau eta bederati urte bitarteko haurrentzat. "Aisialdiko programa hezigarri eta alternatiboa" da Gabongune Txiki, eta abenduaren 26tik 28ra eta urtarrilaren 2tik 4ra burutuko da (11:00etatik 13:30era).

Arduradunen esanetan, "gabonak ere aproposak dira gure seme-alabek zenbait alderdi ezezagun

deskubritzen jarrai dezaten: neguko festa (solstizioaren inguruan), gure herrialdeko eta hurbil dauden beste kultura batzuetako tradiziozko sukaldaritzak, arduraz egindako kontsumoa, jostailurik gabeko jolas kooperatiboak, jostailugintza, babestutako gabonetako landareak, txangoren bat...". Ideia hori oinarri hartuta antolatu dute, bada, gabonetarako eskaintza hau. Informazio gehiagorako: www.debanatura.net.



Nere Oria



Ander Salegi

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT: Debako flashmob herritarra

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, flashmob herritarra burutu zen hilaren leian. Eguraldia ondo baino hobeto portatu zen ekimen egunean, eta plaza eguzkitsu agertu zitzaigun dantza egiteko garaian. Haur eta gazte, guraso zein elkarteetako ordezkariak gogotsu aritu ziren eta umore ona eta, batez ere, alaitasuna nabarmendu genitzake egun hartatik. Kontua ez baitzen, hainbeste, dantza ondo egitea; euskararen inguruan elkartzea baizik, eta elkar-tuz ondo pasatzea, harremanak egi-tea eta poza eta gogoia transmititzea.

Ateratako argazkiekin eta beste toma batzuekin bideo txukun bat egiten saiatuko gara. Aitor Oñederra eta Nere Oriak egingo dute. Eskerrik asko, biei, emandako laguntzagatik eta eskainitako denboragatik. A, eta ahaztu gabe: Zorionak Kuadrillategikoei eta haien hezitzaileei! Momentu politak pasarazi dizkiguzue!!!

Hizkuntza komunitatea berregiteko, taldea osatzeko, sendotzeko, autoestimuan sakontzeko... ekimen bat gehiago. Badira erronkak, handiak oraindik, helburu horri begira; baina bagoaz. Pausoz pauso, urratsez urrats.

Udaleko Euskara Batzordea



Nere Oria



Ander Salegi



Ander Salegi



Ander Salegi



Ander Salegi

Abenduaren 3an Dantzateke haur dantzaldia egin zen Foruen plazan. Azken hiru argazkiak ekimen horri dagozkio.

BERRIKETAN GAZTEA

2012ko abendua
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

aurtenGO gabonak

Aurten, krisian egon arren, gabonak urtero bezala ospatuko dira gure herrian.

Aurrekontu jakin bat dago gabonak aurrera eramateko. Alde batetik, gabonetako argiteriaren alokairuak 6.000 euroko aurrekontua dauka. Bestetik, gabonetako pin-a eta errege kabalgata egiteko 3.000 euroko aurrekontua daukate. Gainera, V. Animadeba jaialdia eta gortina lehiaketa ere gabonetako oporretarako antolatu dute eta 6.000 euroko aurrekontua dauka horrek. Urteberriko periarako beste 16.000 euroko aurrekontua dago. Eta, aipatutako ekintza horiez gain, idi-probak eta urtezaharreko

bandaren kontzertua ere antolatu dituzte.

Gabonetako argiteriari dagokionean, aurreko urteetakoekin konparatuz, argi gutxiago jarriko dituzte aurten eta horrela aurrezten duten diruarekin materiala erosiko dute. Material horrekin, Luzaro eta Mendata ikastetxeetako ikasleekin batera, material birziklatuekin egindako gabonetako apaingarriak egingo dituzte.

Lehenengo puntuan azaldutako ekin-tzetatik, "Animadeba" gazteentzako aproposa da, eta gainontzekoak beraiei zuzenduak ez badaude ere, gazteek parte hartuko dutela espero dute. Animatu zaitzete!




EGILEAK: NAIA ORBEGOZO, AMALIA MENDIKUTE, JON YARZA ETA MAHA AIZPURUA



ELKARRIZKETA

Oraingo honetan, Mendata institutuko erlijio irakaslea den Luma Florezi egin diogu elkarrizketa. Mendatan pasa dituen urte guztiei buruzko galdera batzuk egin dizkiogu.

“Nire iritziz, institutu honetako giroa nahiko lasaia da orokorrean”



Noiz etorri zinen Mendata institutura? Nolatan?

2003ko irailean esan zidaten Debako Mendata institutura, Zumaiara eta Eibarrera joateko erlijio klaseak ematera.

Zer ikasi zenuen orain duzun lanpostua (erlijio irakaslea) izateko?

Magisteritza eta erlijio zientziak ikasi nituen. Magisteritza EHUKo fakultatean ikasi nuen eta erlijio zientziak, berriz, Donostiako goi mailako Pio XII institutuan.

Txikitan ba al zenuen erlijio irakaslea izateko asmorik? Bestela zer izan nahiko zenuke?

Ez. Naturarekin erlazioatutako zerbaite izan nahiko nuke.

Aukera izango bazenu, lanpostua aldatuko zenuke? Zertara?

Bai. Lehen esan dudan bezala, naturarekin erlazioatutako lanposturen batera aldatuko nintzateke.

Noiz arte daukazu pentsatuta Deban jarraitzea? Zure esku egongo balitz, noiz arte geratuko zinateke bertan?

Ni Deban oso gustura nago, baina autopista gero

eta gutxiago gustatzen zait. Ez dakit zer den okerragoa, egunero autopistatik Debara etortzea edo Donostiatik gertuago dagoen beste institutu batera joatea.

Donostiakoa izanik, ez al zara aspertzen ia egunero Debara kotxez etortzen?

Bai, gero eta gehiago.

Institutu honetan hamar urte egon ondoren, esperientzia edukiko duzu jada, ezta?

Bai. Egia esanda 10 urte daramatzat Deban, eta badut esperientzia institutu honetan.

Mendatan hainbeste denbora pasa ostean, zer iritzi duzu honi buruz? (gelako giroa, irakasleak...)

Irakasleen arteko giroa ona da eta ikasleen artekoa ere bai, nire iritziz. Institutu honetako giroa, orokorrean, nahiko lasaia da.

Luma, zein eskolatan moldatzen zara hobeto: Zumaiako institutuan, Mendatan edo Eibarren?

Eibarren urte bat bakarrik egon nintzen; jada ez nago bertan. Urteka joaten da hori: urte batzuetan Deban, beste batzuetan Zumaiara... baina, egia esanda, biak antzekoak dira.

ESKOLAZ KANPOKO ZEREGINAK



INKESTA

Hilabete honetan, Mendatako ikasleei eskolaz kanpo zer egiten ote duten galdetu diegu, eta erantzun hauek jaso ditugu:

- 1.- Eskolaz kanpo ba al duzu zer eginik? Zer?
- 2.- Gustatzen al zaizu? Zergatik?
- 3.- Noiztik zabilta hori egiten?
- 4.- Beste zerbairetan apuntatu nahi duzu?
- 5.- Ikasteko denbora kentzen al dizu?



Naia Agirregabiria:

- 1.- Bai. Aerobica eta euskal dantza.
- 2.- Bai, ondo pasatzen dudalako lagunekin.
- 3.- Aerobica duela lau urtetik, eta euskal dantza 10 urte nituenetik.
- 4.- Ez. Gustura nago honekin eta ez dut ezer gehiago behar.
- 5.- Bai, pixka bat.



Joseba Vallejo:

- 1.- Bai. Partikularra.
- 2.- Ez, Mate ikasten dudalako.
- 3.- DBHko 1. mailatik.
- 4.- Ez. Lehen klarineta jotzen nuen, baina jada ez dut nahi.
- 5.- Ez, partikularrean ikasten baitut.



Rodrigo Chavez:

- 1.- Bai. Gaztelekuko futbol entrenamenduk.
- 2.- Bai. Nire lagunekin jolasten dudalako.
- 3.- Euskal Herrira iritsi nintzenetik.
- 4.- Bai. Musika eskolan, perkusioan.
- 5.- Ez, ostiraletan delako eta aste bukaera guztia dudalako ikasteko.



Ibon Deba:

- 1.- Bai. Futbola eta partikularra.
- 2.- Bai, futboleko ondo pasatzen dudalako eta partikularrean ikasi egiten dudalako.
- 3.- Duela 6 bat urte hasi nintzen futboleko, eta duela 2 partikularrean.
- 4.- Ez, nahikoa dut egiten dudanarekin.
- 5.- Bai, baina gutxi. Gainera, partikularrean ikasi egiten dut.



Ane Masach:

- 1.- Bai. Futbola, pintura, dantza eta aerobica.
- 2.- Bai. Ondo pasatzen dudalako eta lagunekin egoten naizelako.
- 3.- Futboleko eta aerobiceko 5 urterekin hasi nintzen, pinturan 6rekin eta dantzan 8rekin.
- 4.- Ez, gauza asko egiten ditut eta.
- 5.- Bai, ordu asko direlako.



Sara Anton:

- 1.- Bai. Ingeleseko partikularra eta aerobica.
- 2.- Aerobica asko gustatzen zait, ez ordea partikularra.
- 3.- Aerobica txikitatik egiten dut eta partikularra duela urte batzutatik.
- 4.- Ez, ez dut ezer gehiago egin nahi.
- 5.- Bai, baina ez dit denbora gehiegi kentzen.

EGILEAK: AITOR GONZALEZ ETA IMANOL SOBADO

EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETA



Euskararen egunean, orri-banatzaileren lehiaketa egin zen Mendata ikastetxean. 30 parte-hartzaitetik gora izan ziren; gehienbat lehenengo mailakoek hartu zuten parte. Lehiaketa egiten den hirugarren urtea da, eta euskararen inguruan lelo bat edukitzea da gakoa. Aurten irabazle bakarra izan dugu, iaz hiru egon ziren arren, eta **aurtengo irabazlea Julia Ron izan da**, lehenengo mailakoa. Saria zera izan da: irabazleak aukeratutako liburu bat. Datorren urtean ere lehiaketa egiteko asmoa dute, eskolan banatzailerek edukitzea ondo dagoelako. Zorionak Julia Ron!

EGILEAK: NAIA ORBEGOZO, JON YARZA, AMAIA MENDIKUTE ETA MARIA AIZPURUA

DenBora-pasa

TXISTEAK

***Errege bezpera zen. Umea arrantza batean negarrez euan ta amak ixiltze alde:**
-Ixildu zaitez. Ume negartieri erregeek ez die kopiñik ere ekartzen, eta negarrez jarraitzen badozu ez tira pasako erregeak.
-Eztetsa ardura. Maistriak esan zetan, Erregeak pasa arte ez joateko eskolara eta pasatzen ez badira, eskolara joan beharrik ez.



***Semeak amari:**
-Ama, itsasoko ura zergaitik izaten da hain gazia?
-Baña, ez al dakik itsasoko ura zerek gazitzen daben?
-Ez.
-Ezet? Tira, tira, gezurra dirudik, hainbeste denboran eskolan ibili ondoren horrenbeste ez jakitzia. Bakillauak mutil, bakillauak!

Juan San Martin eibartarrak "Zirikadak" liburua idatzi zuen eta bertatik hartu ditugu txiste hauek:



asmakizunak



***Ugaria izan arren bitxia naizela diote, urrezko buru honetan koroa zuria jarri didate.**

***Aurpegia gorri-gorria arantzak dituzu lepoan, zergatik zara hain mingarria besarkatzerakoan?**

EGILEAK: ANE GARCIA, ALEX TREKU, IKER LEIRO ETA NORA MANDIOLA

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala

PRENTSA TALDEA 2012-2013

Naia Orbegozo
Maria Aizpurua
Jon Yarza
Iratz Fernandez
Imanol Sobrado
Jon Albizu

Aitor Gonzalez
Alex Treku
Ane Garcia
Nora Mandiola
Iker Leiro
Amaia Mendicutte

Koordinatzailea: Alberto Agirreazaldegi



Ainara Gorostitzuk etorkinen bizipenak jaso ditu “Aldamenekoa” liburuan



Ikor Kotx (liburuko argazkien egilea), Pedro Nuño, Anwar El Hag, Ainara Gorostitzu, Nikaraguako erorkin bat eta Omar Sarr, aurkezpenean.

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da Ainara Gorostitzuren lana. Immigrazioaren errealitatearen berri ematen du, hamaika etorkinen ahotik jasotako testigantzekin. Idazlea Agirre Jauregian izan genuen “Aldamenekoa” aurkezten, eta liburuko protagonistetako batzuk ere aldamenean izan zituen.

Ainara Gorostitzu Mujika kazetariak (Ataun, 1981) “premia personal batetik” abiatuta ekin zion “Aldamenekoa” liburua idazteari; “inguruari begiratzeko premiatik, hain zuzen ere”. “Duela denboralditxo bat, lana utzi eta ingurura begira jarri nintzenan”, azaldu du, “konturatu nintzen inguru hori gero eta gehiago osatzen dutela kanpoan jaio eta hemen bizi direnek. Eta hainbat galdera etorri zitzaizkidan burura: zenbat etorkin ezagutzen ote ditut nik? Nire koadrilan zenbat etorkin daude? Obran dagoen etorkin horrek sentitzen ote du herriminik? Zergatik uzten du batek bere herria atzean? Pozik bizi ote da hemen? Etxean ba ote dauka inor zain?”.

Bada, galdera horiei erantzuna aurkitu nahian, “aldamenekoen atea jotzea erabaki nuen nik”, kontatu du Gorostitzuk. Hainbat lagunengana jo zuen kazetariak, guztiak ere etorkinak, “pertsonei izen-abizenak eta aurpegia jartzeko helburuarekin”. Hamaika immigranteren atea jo zuen azkenean; kanpoan jaio eta Euskal Herrira bizitzera etorriak horietako hamar, eta San Frantziskon bizi den euskal herritarra bestea.

“Haien atea jo nituen, eta sukaldaraino sartu nintzen. Kafe bat hartu, batzuekin bazkaldu, besteekin afaldu, arratsaldeak pasa... Entzuten jartzea izan da kontua; nik konfiantza eman beraiei eta beraiek niri. Etorkin bati aurpegi bat, izen-abizenak eta bizitza bat jartzen dizkiozunean, zure begiratzeko modua aldatu egiten da. Niri, behintzat, halaxe gertatu zait. Desberdin begiratzen diezu, eta haiek ere desberdin hartzen zaituzte zu. Aldamenekoaren aldamenekoa norbera dela esateko nahi horrekin egina dago liburu hau”.

Oso jatorri eta adin ezberdinak dituzte liburuko protagonistek, eta immigratzeko izan dituzten arrazoiak ere askotariakoak dira: arrazoi ekonomikoak, arrazoi militar eta politikoak, maitasun kontuak... “Azken finean, edozeinen aldamenekoaren atea jo eta bertan aurki daitezkeen istorioak dira kontatu nahi izan ditudanak”, dio Gorostitzuk. Idazleak ez ditu istorio bereziak bilatu, baina protagonisten bizipenak entzuten jarrita, “istorio guztiak bereziak” direla konturatu da, “ezohikoak eta interesgarriak ere bai”. Moldavia, Maroko, Palestina, Venezuela,

Kolonia, Nikaragua, El Salvador, Espainia eta Senegaletik etorritako lagunak bizipenak jasotzen ditu, baita Euskal Herria atzean utzi eta egun AEBn bizi den herritarrarena ere.

Esker onez

Pedro Nuño, liburuaren protagonistetako bat, aldamenean izan zuen Gorostitzuk liburuaren aurkezterakoan. Burgoskoa da Pedro, eta 1975eko azaroan etorri zen Barakaldora, 19 urterekin. Berak kontatu duenez, Gorostitzuk bere proiektuaren berri eman zionean, “benetan interesgarria” iruditu zitzaion, “besteek nola begiratzen zaituzten ikustekak zu zeu nolakoa zaren ikusteko ere balio dizulako”. Hortaz, egilearekiko esker onez agertu zen Nuño, egitasmoan atsegin handiz parte hartu duela nabarmenduz.

Omar Sarr (Altsasun bizi den senegaldar gaztea) eta Anwar El Hag palestinarra ere izan ziren aurkezpenean. Azken hori Bermeon bizi da, eta 31 urte daramatza sorterrira itzuli gabe. Prentsaurrekoan aipatu bezala, “nire historia herri baten historiaren parte bat da. Komunikabideek zerbait kontatzen dute, baina ez askorik. Horregatik, nire testigantza nire herriaren mezu bat izan dadila nahi nuke, palestinarrekin gertatzen dena jakin dezazuen”. Euskal herritarrak nolakoak iruditzen ote zaizkion galdetzean, Anwarrek “errespetu larregi” dugula dio irribarretsu. “Dena den, nire ustez bi gauza hartu behar dira kontuan immigrazioaz hitz egitean: guk nola hartzen ditugun etorkinak, batetik; eta etorkina bera izaeraz nolakoa ote den, bestetik. Azkenean, elkarbizitza bera horretan datza”.

“Aldamenekoa” liburuaren Elkarrek kaleratu du, Lekuko sailean, eta salgai dago jadanik. Ainara Gorostitzuk ez ezik, Antxiñe Mendizabal editoreak ere eskerrak eman zizkien Debako Udalarri eta herriari, Tene Mujika bekari esker hainbat idazleren egitasmoak eta lanak liburu bihurtzeko aukera emateagatik.

Iaz bi irabazle izan zituen Tene Mujika beka: batetik, Gorostitzu; bestetik, Pako Aristi eta Mikel Markez, “Plazer bat izan duk, Benito!” liburuaren egileak (maiatzean argitaratu zen).



Ane Arrizabalagak eta Nere Oriak irabazi dute Beldur Barik lehiaketako Herri Saria

“Ez utzi itzaltzen” izena duen lanarekin jaso dute Ane Arrizabalaga eta Nere Oriak debar gazteek Beldur Barik lehiaketako Herri Saria. Web orrialdeko botoen bitartez irabazi dute lehia, guztira 869 boto jasota, eta 300 euroko saria lortu du bikoteak. Gainera, herri mailan egindako lehiaketan ere bigarren kategoriako irabazleak beraiek izan dira. Lehenengo kategorian, berriz, Gaztelekuko gazteen lanak eraman du saria “Ezberdinak berdintasunean” izeneko lanarekin.

Beldur Barik jarrera lehiaketa Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan antolatzen da. Aurten 8.600 pertsona inguruk hartu dute parte bideo-sorkuntzako lehiaketaren herri bozketan. Hautaketa www.beldurbarik.org webgunearen bitartez egin da; jendeak gustuko zituen bideoak bozkatu ahal izan ditu, gazteak emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan inplikatzera bideratutako ekitaldi honen hirugarren edizioan aurkeztutako EAE osoko 131 lanen artean.

“Emakumeak Francoren espetxeetan” Aurten azaroaren 25aren bueltan antolatutako egitarauari bideo-forum baten bitartez eman zaio amaiera. Durango 1936 elkarteko Maria Gonzalez kideak hitzaldia eskaini zuen Kultur Elkartean, gerra osteko emakumeen aurkako errepresioa hizpide hartuta. Rosario Sánchez Mora, “Rosario Dinamitera”ri egindako elkarrizketaren proiektzioa ere eskaini zen.

San Silbestre lasterketa herrikoiairen laugarren edizioa izango da aurtengoa



Abenduaren 31n laugarren San Silbestrea izango dugu Deban. Lasterketa herrikoia Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak antolatuko du, Debako Udalaren laguntzarekin, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea.

Antolatzaileen esanetan, “familia eta lagun artean goiz alai bat proposatu nahi da urtea ongi bukatzeko”. Helburu hori lortu nahian, urteko azken egunean hiru lasterketa mota egingo dira; horietako bi etxeko txiki eta gazte-txoentzako. Hona hemen horien inguruko xehetasun nagusiak:

*Gaztetxoak 1 (5-8 urte bitartean):

Ordua: 11:15ean, udaletxe aurrean. Ibilbidea: 200 metro, plaza inguruan. Izen-ematea: doakoa. Parte hartu nahi duten gaztetxoak 11:15erako inguratu beharko dira irteerara.

*Gaztetxoak 2 (8-12 urte bitartean):

Ordua: 11:30ean, udaletxe aurrean. Ibilbidea: 400 metro, plaza inguruan. Izen-ematea: doakoa. Gaztetxoak 11:30ean inguratu daitezela irteerara.

*Nagusiak (12-14 urte bitarteko gazteek nagusi batekin egin dezakete ibilbidea). 5,2 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariek. 12:00etan Udaletxe paretik irtengo da lasterketa (leku berean amaituko da proba).

Izen-ematea, Turismo Bulegoan

Lasterketan parte hartu nahi dutenek Turismo Bulegora jo beharko dute, abenduaren 28a bitarte, eta bost euro ordaindu beharko dituzte (gurasoekin doazen gaztetxoek doan parte hartu ahal izango dute). Dena den, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera (udaletxe azpian, 10:45ean), oraindik dortsalak soberan baldin badituzte behintzat.

Lasterketa amaitzen duten herriko lehenengo neska-mutilek oroigarri bat jasoko dute sari modura. Bukaeran parte-hartzaileentzako salda beroa eta txorizo egosia banatuko dute udaletxe azpian (dortsala bueltatu beharko da mokaduaz gozatzeko), eta zozketarik ere izango da parte-hartzaile guztientzako.

Santa Zeziliaren omenez



Musikarien Eguna ospatzen da azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean. Eta, beste behin ere, herrian ez zen oharkabean pasa musikarien festa. Egun horren bueltan, besteak beste, Aitzuri Abesbatza (irudian) kalez kale ibili zen, txistulariek emanaldia eskaini zuten udaletxe azpian, eta Debako Bandaren kontzertua elizako klaustroan egin zen.

HARRERA Elkartea aurkeztuko dute urtarrilaren 20an

Datorren urtarrilaren 20an (11:30ean) HARRERA Elkartean aurkezpena egingo da, Debako Kultur Elkartean. Bertan, elkarteko ordezkariak izango dira, HARRERAREN helburuak eta nondik norakoak azaltzeko. Lerro hauen bitartez aurkezpena joateko gonbitea egin nahi diete herritarrei.

-Zer da HARRERA Elkartea? Zein helbururekin jaio da?

Harrera Elkartea, gatazka politikoa-
ren ondorioz preso egon direnak, edo iheslariak, herrira itzultzen direnean, gizartean txertatzen laguntzeko babesa eta sostengua eskaintzeko helburuarekin sortzen den elkartea da. Beraz, esan dezakegu, izaera asistentziala duen elkartea dela.

-Noiz sortu da?

Preso ohien artean kalera irtendakoa-
ri nolabaiteko laguntza eskaintzeko joera betidanik egon da. Baina, askotan, kalera ateratzen denak dituen behar guztiei erantzutea ez da gutako bakoitzaren esku egoten. Horregatik, orain elkarte bat sortzea erabaki da, bakoitzaren beharren arabera: izapide burokratikoak direla, osasun arazoak, edo lan-formakuntza, zein beste hainbat arazotan laguntza integralago bat eskaintzeko asmoz.

Horretarako, elkarteari izaera legala ematea erabaki zen, eta jada, udaz geroztik horrela da.

-Nortzuk osatzen dute elkarte hau? Elkartean gehiengoa preso ohiok

osatzen dugu, baina gaiarekin sentsibilitatea duen edonork har dezake parte.

Azken batean, gatazka politikoa-
ren ondorioz preso egon direnak edo iheslariak herrira itzultzen direnean, gizarteratzen laguntzea, eta bizitza duina eraman dezaten bitartekoak jartzea, jendarte osoaren egin beharra dela uste baitugu.

-Nori zuzendua dago urtarrilaren 20ko aurkezpen ekitaldia?

Lehentxeago aipatu dugun bezala, jendarte osoaren parte-hartzea eskatzen duen gaia da hau. Zentzu horretan, jendarte osoari zuzendua dago, eta bereziki gaiarekin sentiberatasuna duen ororentzat, noski, laguntza eskaintzeko prest dagoen edonorentzat.

Nolanahi ere, HARRERA-
ren aurkezpenean elkarteko ordezkariak izango ditugunez, askoz hobeto zehaztuko dizkigute elkartean helburuak, eta nondik norakoak.

Beraz, alde zuretik esker-
tzen dizkizugu zure parte-hartze, iritzi eta iradokizunak.

Harrera Elkartea



Josune Arakistain eta Alaitz Escudero, hirugarren Euskal Herriko Trikitilari Gazteen finalean

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen finala Zaldibarren burutu zen, abenduaren 2an, eta Lasturko Josune Arakistainek eta Debako Alaitz Escuderoek osatutako bikoteari hirugarren saria eman zioten bertan. Guztira zortzi bikote bildu zituen txapelketaren 21. edizioako finalak, eta gure herriko neskek pozik itzuli dira bertan lortutako emaitzarekin. Izan ere, iazko txapelketan lortutako emaitza hobetu dute oraingoan, orduan bosgarren postuan gelditu baitziren. Zorionak, bikote!



Urteberriko Idi-Probak, urtarrilaren 1etik 9a bitarte

Idi-proben zaleek hitzordua dute laster Euskal Jolas pilotalekuan, urteberriko idi-probek XXXVII. edizioa izango baitute urtarrilaren 1etik 9a bitarte. Sari nagusia 1.650 eurokoa izango da (trofeo eta Udalak eskainitako estalkiez gain).



Ander Salegi

Haitz Haundiren gabonetako margo erakusketa

Beste behin ere, Haitz Haundi Pintura Elkartek Gabonetarako erakusketa antolatu du. Udaletxeko pleno aretoan egongo da ikusgai, abenduaren 21etik urtarrilaren 4ra bitartean (ordutegia: astegunetan 18:00etatik 20:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik

14:00etara). Erakusketara hurbiltzen direnek herriko margolari profesionalen zein amateurren margolanak ikusteko aukera izango dute; ikusgai jarriko diren lanen egileen artean daude ikasturtean zehar Haitz Haundi Elkartean ibiltzen diren ikasleak ere.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



Agenda

Abenduak 21, ostirala

-Santo Tomas Eguna.

Abenduak 24, astelehena

-12:30. **Olentzero eta Mari Domingiri ongiatorria**, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarteko postua Foruen plazan.
-13:00. **Aitzuri Abesbatza**, kalez kale.
-17:00. **Presoen aldeko Olentzero**. Plaza zaharretik irtengo da.

Abenduak 26, asteazkena

-Debalai elkarteak antolatutako gabonetako **haur parkea**, Aldats pilotalekuan.
-**"Barrura begiratzeko leihoak"** filma proiektatuko da Agirre Jauregian.

Abenduak 27-30

-**Debako V. animazio zinemaldia**. Animadeba 2012. Informazio gehiago ale honetako 9. orrialdean.
-12:00. **Jaiotza biziduna**, Elizan.

Abenduak 28, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Preso eta iheslari politikoen aldeko ekitaldia, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Abenduak 31, astelehena

-**Itziarren kantuz kantu** Olentzero. (Irteera: 8:30ean, Gudarien plazatik).
-**IV. San Silbestrea**. Informazioa ale honetako 16. orrialdean.
-19:30. Presoen aldeko **elkarretaratzea eta brindisa**, Foruen plazan.
-Iluntzean, **Debako Musika Bandaren Gabon Zahar kontzertua**.

Urtarrilak 1-9

-**Urteberriko XXXVII. Idi-Probak**, Euskal Jolasen.

Urtarrilak 4, ostirala

-**Bizar Zuri**. 19:00etatik aurrera herriko kaleetan zehar.

Urtarrilak 5, larunbata

-**Zoro Feria**. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da (fruta eta barazki azoka, ganadu feria, artisau postuak, kalejirak...). 11:00etan **IV. Zubeltzu Bertso-Paper Sariketari** dagozkion sariak banatuko dira udaletxean.
-19:00. **Errege kabalgata**, herriko kaleetan zehar.

Urtarrilak 19-20

-**San Sebastian deunaren jaiak** Elorriagan.

Erakusketak

-**Haitz Haundiren pintura erakusketa**, udaletxean. Abenduaren 21etik urtarrilaren 4ra bitartean egongo da ikusgai. Informazio gehiago ale honetako 17. orrialdean.

-Animadeba 2012 jaialdiaren baitan, **Isabel Hergueraren "Cuadernos de viaje-Bidai**

koadernoak" izenburuko erakusketa egongo da ikusgai, Agirre Jauregiko erakusketa aretoan. Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra bitartean.

-**Jaiotzen erakusketa**, Turismo Bulegoan. Haurrek egindako lanak egongo dira ikusgai gabonetan zehar.

Gaztelekuko ekimen bereziak

Urtero bezala, gabonetako egitarau berezia antolatu du Debako Gaztelekuak, gazteekin elkarlanean.

DebaCup Nazioarteko Futbol Txapelketaren III.

edizioa, futbolin txapelketa, gabon antzerkia, irteerak Txuri Urdinera, zinemara eta Euskal Herria-Bolivia futbol partidara... eta askoz gehiago! Animatu eta parte hartu!!

Gutun lehiaketa

Debalai elkarteak **Desioen Gutuna 2012** izeneko lehiaketa antolatu du Debako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Olentzerori zuzendutako gutunak jasotzeko azken eguna abenduaren 23a da. Jasotako gutun guztien artean idatzi xelebre eta originalenak baloratuko dira. Bi kategoria bereizi dituzte lehiaketan (6-8 urte bitartekoena eta 9 urtetik 12ra artekoena) eta sari gisa argazki-kamera digitala jasoko dute irabazleek.

Gutunak Debalai osatzen duten saltoki eta tabernetan jarritako postontzietan laga

beharko dira.

Sari banaketa abenduaren 29an egingo da (larunbata).



Gabonetako ordutegi berezia liburutegian

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4a bitarte, Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du. Goizez bakarrik egongo da zabalik.

*Liburutegi orokorra, astelehenetik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201

BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat gardian.

09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikan.

Larunbat goizetan beti bat irekita:

9:30 - 13:30



OHARRA:

Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera Deba, Mendara, Mutriku eta Soroluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurtten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka . 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

ZUGANDIK ZUGANA



Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik



BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trazoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



BADATÓZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

EGUBERRI ON!!

Abenduak 24, astelehena
12:30ean ongiatorria plaza zaharrean.
Ondoren, salda eta ogitarteko
postua Foruen Plazan.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

**Eguberri zoriontsu
eta urte berri on!**



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Ifar kalea, 12 - Telf: 943 19 22 36
debabe.deba@telefonica.net